# GORABIDE

Nº 250 Zk.
MAYO DE 2016
2016KO MAIATZA

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA



INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

Atención odontológica / Arreta odontologikoa pg. 4 or.




Participación con Iberdrola / Iberdrolarekin lankidetzan pg. 5 or.



Gestión aprobada por la asamblea / Batzarrak onartutako kudeaketa pg. 8 or.





# Nuestro cuarto Plan Estratégico apuesta por empoderar a las personas con discapacidad y sus familias

# Gure laugarren Plan Estrategikoak desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak ahalduntzea du helburu






## La Caixa y Atades premian nuestro Programa Goratu y nuestra trayectoria (pg. 6-7)

## La Caixak eta Atadesek gure Goratu Programa eta gure ibilbidea saritu dituzte (6-7. or.)

# Gure laugarren Plan Estrategikoak adimen desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak ahalduntzea du helburu

## *Ahaleginduko gara, gainera, elkarteko parte hartzea indartzen, eta profesionalen eta gizarteko boluntarioen garapena sustatzen*

**Gorabideko 2016-2019 Plan Estrategikoaren elaborazioan, profesionalen, erabiltzaileen, familien eta boluntarioen kontraste taldeen parte hartzea izan dugu, baita kanpoko adituen lankidetza ere. Bertan daude jasota erronka eta helburu nagusienak datozen lau urteetarako.**



Adimen desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak ahalduntzeak duen azken helburua da ahalik eta bizi kalitate onena lor dezaten laguntzea. Horretarako, berrikuntza finkatzeko egingo dugu lan, bai pertsonak eta familiak ahalduntzeko, bai irisgarritasun kognitiboari dagokionean edo sortzen diren beharrei erantzuna ematen.

Era berean, 2016-2019 Plan Estrategikoak nahi du elkarte mugimendu zabal, kohesionatu, parte hartzailea eta kide izatearen sentimendua duena izatea, familiek elkartea den modukoa senti dezaten: haien espazioa, modu aktiboan parte hartzeko aukera ematen duena.

### Profesionalen garapena

Datozen lau urteetarako faktore garrantzitsuenetakoa Gorabiden lan egiten duten pertsonen garapenarekin jarraitzea da, elkartearen balio, helburu eta xedeekin duten lotura sustatzeko, horrela kalitatez eta hurbiltasunez eskainiko dituzte erabiltzaileek behar dituzten laguntzak, eta, aldi berean, profesional modura garatuko dira.

### Inguruaren alde konpromisoa

Plan estrategiko berriak Gorabideren gizartearekiko konpromisoa eta eragin soziala mantentzea eta sustatzea ere nahi du. Batetik, adimen desgaitasuna duten pertsonen parte hartzearen bidez, eta, bestetik, gizarteko boluntariotzaren bidez, arlo guztietan, balio etiko eta solidarioak hedatuz, eta gure kolektiboari buruz sor daitezkeen estereotipoak eragotziz. Horretaz gain, erronka hartu dugu sareetan lan egiten jarraitzeko, hirugarren sektorearen garapenean laguntzeko eta erakundeekin ditugun hitzarmenak sendotzeko.

### Nolakoak izan nahi dugun

2019ra arte ezarrita ditugun helburuekin, elkarte mugimendu kohesionatu, bikain eta ingurunearekin konprometitua izan nahi dugu, erreferente soziala dena eta teknikoki berritzaile, malgu eta iraunkorra, eta adimen desgaitasuna duten emakume eta gizonen haien familien zerbitzura dagoena. Hori guztia, kolektibo nagusi bi horien orientazio modura eta balio hauek dituztela: profesionaltasuna, lankidetza, aldarrikapena, berdintasuna, azkartasuna, berrikuntza, gardentasuna eta konpromiso etikoa.

IRAKURKETA ERRAZA

Gorabiden 2019. urtera arte zer egingo dugun pentsatu dugu. Lortu nahi dugu adimen desgaitasuna duten pertsonek ahalik eta bizi kalitate onena edukitzea. Gainera ahaleginduko gara familiek elkartea gehiago bizi dezaten. Eta erronka dugu gizartea hobetzeko, ahal dugun neurrian.

# Nuestro cuarto Plan Estratégico apuesta por el empoderamiento de las personas con discapacidad intelectual y sus familias

## *Nos esforzaremos además por fortalecer la participación en la asociación, y por potenciar el desarrollo de profesionales y el voluntariado social*




LECTURA FÁCIL

En Gorabide, hemos pensado qué vamos a hacer hasta el año 2019. Queremos conseguir que las personas con discapacidad puedan tener la máxima calidad de vida posible. También vamos a intentar que las familias vivan más la asociación. Y tenemos el reto de mejorar la sociedad en lo que podamos.

**El Plan Estratégico 2016-2019 de Gorabide ha sido elaborado con la participación de grupos de contraste de profesionales, personas usuarias, familias y voluntariado, así como la colaboración de expertos externos. En él, se recogen los principales retos y objetivos de cara a los próximos cuatro años.**

La apuesta principal por empoderar a las personas con discapacidad intelectual y sus familias tiene como fin último contribuir a que alcancen la máxima calidad de vida posible. Para ello, trabajaremos por consolidar la innovación, tanto en ese ámbito del empoderamiento de personas y familias, como en lo que respecta a accesibilidad cognitiva o la respuesta a necesidades emergentes.

De igual manera, el Plan Estratégico 2016-2019 busca contar con un movimiento asociativo amplio, cohesionado, participativo y con sentimiento de pertenencia, de manera que las familias sientan la asociación como lo que es: un espacio propio en el que pueden participar activamente.

**Desarrollo de profesionales**

Otro de los factores clave para los próximos cuatro años es continuar con el desarrollo de las personas que trabajan en Gorabide, potenciando su vinculación con los valores, fines y objetivos de la asociación, de manera que puedan prestar con calidad y calidez los apoyos que precisen las personas usuarias, al mismo tiempo que crecen profesionalmente.

**Compromiso con el entorno**

El nuevo plan estratégico también persigue mantener y potenciar el compromiso con la sociedad y la incidencia social de Gorabide. Tanto a través de la participación de las personas con discapacidad intelectual en su entorno, como mediante el voluntariado social en todas las vertientes posibles, la difusión de valores éticos y solidarios, y combatiendo posibles estereotipos preconcebidos sobre nuestro colectivo. Además, nos hemos marcado el reto de seguir trabajando en redes, contribuir al desarrollo del tercer sector y afianzar nuestras alianzas institucionales.

**Cómo queremos ser**

Con los objetivos que hemos establecido de cara a 2019, pretendemos ser un movimiento asociativo cohesionado, excelente y comprometido con su entorno, que sea referente social y técnicamente, innovador, flexible y sostenible, y que esté al servicio de estos dos colectivos principales. Todo ello, con valores como orientación a estos dos colectivos principales, profesionalidad, cooperación, reivindicación, igualdad, agilidad, innovación, transparencia y compromiso ético.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Prestación de atención odontológica a personas con discapacidad

Para evitar que algunas personas con discapacidad intelectual tengan que someterse varias veces a sedación profunda o anestesia general cuando sus tratamientos bucodentales precisan tanto de intervenciones cubiertas por Osakidetza como de otras que no lo están, el Gobierno Vasco ha aprobado una resolución para que puedan realizarse en centros privados, en un mismo acto, todas las intervenciones necesarias, teniendo derecho a la financiación pública de las prestaciones incluidas en el Sistema Vasco de Salud.

Para poder acogerse a esta financiación, hay que solicitar autorización previa en la Unidad de Prestaciones Sanitarias de la Delegación Territorial de Salud que corresponda, con la siguiente documentación:

- Impreso de solicitud.
- Certificado de discapacidad de la Diputación.
- Informe médico del Servicio de Odontologia de Atención Primaria (preferentemente), del Servicio Médico de Familia o, si es el caso, del Servicio Médico del centro residencial donde vive, indicando la necesidad de sedación profunda o anestesia general.
- Informe médico detallado del centro privado y su correspondiente presupuesto.

Para su aceptación, se tendrá en cuenta que los precios de las prestaciones no excedan de los especificados en el libro de tarifas de osakidetza. Una vez autorizada la financiación y comunicada a la persona interesada, el centro privado podrá realizar la intervención y enviará una factura a la delegación territorial de salud, que hará un abono directo al centro privado. Las actuaciones financiables no previstas en el presupuesto inicial podrán facturarse si se acompañan de una justificación adicional del centro privado.

Este procedimiento también regula situaciones de urgencia en las que no se pueda pedir autorización previa.

# Desgaitasuna duten pertsonen arreta odontologikorako prestazioa

Adimen desgaitasuna duten pertsonek sedazio sakona edo anestesia orokorra hartu behar izaten dute, behin baino gehiagotan, aho-hortzetako tratamenduetan, Osakidetzak ordaintzen dituen zein ez dituenetan. Hori ekiditeko, Eusko Jaurlaritzak ebazpena onartu du tratamendu horiek zentro pribatuetan egin ahal izateko beharrezkoak diren interbentzio guztiak, kontsulta bakarrean, eta Osakidetzako prestazioen finantzazio publikoa jasotzeko eskubidea izango dute.

Finantzaketa hori jaso ahal izateko, aldez aurretik eskatu behar da baimena bakoitzari dagokion Osasuneko Lurralde Ordezkaritzako Osasun Prestazioetako Sailean, eta horretarako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Eskaera orria.
- Aldundiaren desgaitasun agiria.
- Arreta Orokorreko (ahal dela) Odontologia Zerbitzuko medikuaren txostena, Familiako Medikuarena, edo, hala izanez gero, bizi den egoitzako mediku zerbitzuarena, sedazio sakona edo anestesia orokorra behar dela adieraziz.
- Zentro pribatuaren txosten mediku zehatza eta dagokion aurrekontua.

Onartua izateko, kontuan hartuko da prestazioen prezioak ezin direla handiagoak izan Osakidetzako tarifen liburuan zehaztuta daudenak baino. Finantzaketa onartu eta interesatuari jakinarazi ondoren, zentro pribatuak interbentzioa egin ahal izango du eta faktura bidaliko du osasuneko lurralde ordezkaritzara. Handik ordainduko diote zuzenean zentro pribatuari. Hasierako aurrekontuan aurreikusi gabeko interbentzio finantzagarrien faktura egin ahal izango da, zentro pribatuaren justifikazioa erantsita badute.

Prozedura horrek arautzen ditu aurretiazko baimena eskatu gabe sortutako premiazko egoerak ere.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# Varias de nuestras personas usuarias, en el Día del Accionista de Iberdrola

## *Repartieron los regalos que la compañía energética obsequió a las personas que acudieron a la Junta de Accionistas celebrada en el Palacio Euskalduna*




Amaia, Ana María, César, Enara, José Manuel, Juan Miguel, Mariángeles, Melania y Mikel, con los monitores Iosu, Jon y David, formaron parte del equipo de más de 150 personas encargadas de facilitar el desarrollo de la última Junta de Accionistas de Iberdrola. En su caso, tuvieron la tarea de repartir los obsequios a quienes acudieron al encuentro. La experiencia fue muy enriquecedora, y todas las personas de Gorabide que participaron se mostraron encantadas de poder colaborar de manera inclusiva en una actividad como esa.

La participación de personas con discapacidad intelectual en el Día del Accionista de Iberdrola ha supuesto un paso más en la colaboración que mantiene esta compañía con Gorabide, que desde 2007 se cristaliza en la plantación conjunta de especies autóctonas en el Día del Árbol o en las jornadas de voluntariado corporativo que se han desarrollado durante varios años. Y ambas entidades apuestan por la continuidad de estas acciones que visibilicen a nuestro colectivo.

LECTURA FÁCIL

Nueve de nuestras personas usuarias y tres monitores repartieron los regalos de la Junta de Accionistas de Iberdrola. Les gustó mucho poder participar en ese acto. Esta colaboración se suma a otras actividades que ya hacemos con Iberdrola.

# Gure erabiltzaile batzuk, Iberdrolako Akziodunaren Egunean

## *Energia konpainiak Euskalduna Jauregian egin zuen Akziodunen Batzarrera joan zirenei emandako opariak banatu zituzten*

Amaia, Ana María, César, Enara, José Manuel, Juan Miguel, Mariángeles, Melania eta Mikel, Josu, Jon eta Daviden laguntzarekin, 150 pertsona baino gehiagoko taldeko kide izan ziren Iberdrolako azken Akziodunen Batzarrean laguntza ematen. Haien eginkizuna topaketara joan zirenei opariak banatzea izan zen. Esperientzia aberasgarria izan zen, eta parte hartu zuten Gorabideko pertsona guztiak egon ziren poz-pozik, horrelako jarduera batean modu inklusiboan kolaboratu ahal izan zutelako.

IRAKURKETA ERRAZA

Gure bederatzi erabiltzailek eta hiru monitorek opariak banatu zituzten Iberdrolako Akziodunen Batzarrean. Asko gustatu zitzaien ekitaldi horretan parte hartzea. Lankidetza horretaz gain, Iberdrolarekin beste jarduera batzuk ere egiten ditugu.

Adimen desgaitasuna duten pertsonek Iberdrolako Akziodunen Egunean parte hartzea beste urrats bat izan da konpainia horrek Gorabiderekin duen lankidetzaren barruan. Izan ere, 2007tik aurrera, Zuhaitz Egunean espezie autoktonoak landatzen dituzte elkarrekin eta hainbat urtetan egin diren boluntariotza korporatiboko jardunaldietan ere hartzen dute parte. Erakunde biek jarraitu nahi dute ekintza horiek burutzen gure kolektiboa ikusgarri egiteko.

# Nuestro Programa Goratu recibe uno de los Premios la Caixa a la Innovación y Transformación Social

## *Con esa iniciativa, personas con discapacidad intelectual ofrecen charlas sobre su realidad en centros educativos y universidades, familias u otras entidades*




Xabier Iñurrategi, una de las nueve personas usuarias de Gorabide que forman parte del Programa Goratu, acompañado de nuestro presidente Hugo Baroja, recogió en Barcelona uno de los Premios la Caixa a la Innovación y Transformación Social, que reconocen a entidades que, *“de forma significativa, están logrando responder a los retos actuales de la sociedad y que muestran capacidad para modificar una problemática social de una manera sostenible”*.

Este galardón sirve de reconocimiento a un proceso que comenzó en 2013 con la capacitación de personas usuarias de Gorabide y la posterior selección los temas de interés que integran las charlas que comenzaron a impartirse en 2014. Desde entonces, 1.750 personas han participado en 70 sesiones ofrecidas en centros educativos, universidades, centros de salud, empresas y otras entidades, para dar a conocer la realidad de las personas con discapacidad intelectual. *“Tenemos mucho que decir, y lo queremos contar con nuestra propia voz”*, expresó Xabier en su agradecimiento.

### Programa transformador

La Caixa ha concedido diez premios, dotados de 15.000 euros cada uno, a proyectos seleccionados entre 489 candidaturas. En el caso del Programa Goratu, ha reconocido que *“implementa un sistema de formación sobre la discapacidad intelectual y de sensibilización hacia la realidad de este colectivo, liderado e impartido por personas con discapacidad intelectual, tanto en modalidad presencial como virtual, encaminado a generar actitudes transformadoras en la comunidad en torno al valor de la diversidad funcional”*. Por su parte, el director general de la Fundación la Caixa, Jaume Giró, citó al Programa Goratu como *"ejemplo de transformación social"*.

## Los Premios Atades 2016 nos reconocen como entidad líder de apoyo a personas con discapacidad intelectual

**La asociación aragonesa Atades ha concedido a Gorabide su Premio 2016 a la Entidad Líder en Apoyo a Personas con Discapacidad Intelectual, dotado con una escultura en bronce y 1.500 euros, *“por su sólida y amplia trayectoria en el trabajo para mejorar la vida de las personas con discapacidad intelectual y sus familias”*.**



# Gure Goratu Programak la Caixak Berrikuntzari eta Gizarte Aldaketari emandako sarietako bat jaso du

***Ekimen horren bidez, adimen desgaitasuna duten pertsonek hitzaldiak ematen dituzte haien errealitateari buruz interes-talde desberdinei***




Xabier Iñurrategi, Goratu Programa osatzen duten Gorabideko bederatzi erabiltzaileetako bat, Hugo Baroja gure presidenteak lagunduta, Bartzelonan izan zen la Caixak Berrikun-tza eta Gizarte Aldaketari emandako sarietako bat jasotzen. Sariaren bidez, erakunde batzuk saritzen dira, izan ere *"gaur egungo gizartearen erronkei erantzuna ematea lortzen dute era garrantzitsuan, eta erakusten dute gaitasuna dutela gizarteko arazoak eraldatzeko modu iraunkor batean"*.

Sariak aintzat hartzeko balio du 2013an Gorabideko pertsona erabiltzaileak trebatzeko hasitako prozesua eta, ondoren, 2014an ematen hasi ziren hitzaldietarako gaiak aukeratzea. Handik aurrera, 1.750 pertsonak hartu dute parte ikastetxe, unibertsitate, osasun zentro, enpresa eta beste erakunde batzuetan emandako 70 saiotan, adimen desgaitasuna duten pertsonen errealitatea ezagutzera emateko. *"Asko daukagu esateko, eta geure ahotsarekin kontatu nahi dugu"*, adierazi zuen Xabierrek esker onez.

**Programa eraldatzailea**

La Caixak hamar sari eman ditu, bakoitza 15.000 eurokoa, 489 hautagairen artean aukeratutako proiektuentzat. Goratu Programaren kasuan, adierazi du *"adimen desgaitasunari buruzko prestakuntza sistema eta sentsibilizazio bidea ezartzen duela kolektibo horren errealitatearekiko, adimen desgaitasuna duten pertsonek lideratuta eta haiek emanda, modu presentzialean eta birtualean, eta aniztasun funtzionalaren balioari buruzko jokabide eraldatzaileak sortzea duela xede"*.

Bestalde, Jaume Giró la Caixa Fundazioaren zuzendari nagusiak adierazi zuen Goratu Programa *"gizarte aldaketaren eredu"* zela.

## Atades 2016 Sariek adimen desgaitasuna duten pertsonei laguntza ematen liderra den erakunde garela aitortzen digute


Fotografía de Gabi Orte-ren argazkia

**Aragoiko Atades elkarteak Gorabideri eman dio bere 2016ko Adimen Desgaitasuna duten Pertsonei Laguntza ematen Liderra den erakundeari Saria *"adimen desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien bizitza hobetzeko lanean egindako ibilbide sendo eta luzeagatik"*. Golardoa brontzezko eskultura eta 1.500 euro da.**

# GORABIDE

MAYO DE 2016 | Nº 250 Zk | 2016KO MAIATZA


Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, con la misión de mejorar su calidad de vida desde un compromiso ético y promoviendo una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta helburu du Bizkaian adimen desgaitasuna dutenen eta beren familiartekoen bizi-kalitatea hobetzea, konpromiso etikoa oinarri hartuta, eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa sustatzen. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) entitate sustatzailea.




**La asamblea de socias y socios aprobó la gestión y los resultados financieros de 2015, así como el Plan Estratégico 2016-2019 y el presupuesto para 2016. También validó una cuota de 70 euros para 2017 y votó a favor de la renovación de la junta directiva.**

**Bazkideen batzarrean, 2015eko finantza kudeaketa eta emaitzak onartu ziren, baita 2016-2019 Plan Estrategikoa eta 2016rako aurrekontua ere. 2017rako 70 euroko kuota ere ezarri zen eta zuzendaritza batzordea berritzearen aldeko botoa eman zuten.**



# agenda mayo maiatza

## AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

**JÓVENES**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna: 3 martes / asteartea — Hora / Ordua: 18:00

**LOS NUEVOS**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna: 2 lunes / astelehena — Hora / Ordua: 18:00

**LOS ELEGANTES**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna: 4 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua: 18:00

**LOS VETERANOS**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna: 4 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua: 18:00

**GURE AHOTSA**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
Día / Eguna: 18 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua: 18:00

## FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

**FAMILIAS DE ESCOLARES / ESKOLA-UMEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna: 31 martes / asteartea — Hora / Ordua: 18:00

**FAMILIAS DE ADOLESCENTES / NERABEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna: 30 lunes / astelehena — Hora / Ordua: 18:30

**FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna: 12 jueves / osteguna — Hora / Ordua: 17:30

**FAMILIAS DE ADULTOS/AS / HELDUETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
Día / Eguna: 19 jueves / osteguna — Hora / Ordua: 18:30

más en... www.gorabide.com/agenda ...gehiago

## AGRUPACIONES / ELKARTEAK

**DEUSTO-SAN IGNACIO** — Junta / Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
Día / Eguna: 3 martes / asteartea — Hora / Ordua: 19:30

**ERMUA** — Junta / Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/ etxabe A - Ermua*
Día / Eguna: 2 lunes / astelehena — Hora / Ordua: 19:30

**MUNGIALDEA** — Comisión / Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
Día / Eguna: 3 martes / asteartea — Hora / Ordua: 20:00

**SANTURTZI** — Comisión / Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
Día / Eguna: 25 miércoles / asteazkena — Hora / Ordua: 19:00

**Visita de familias al Museo de La Paz**
Miércoles 11, 18:30

**Familien bisita Bakearen Museora**
Asteazkena 11, 18:30

D.L./L.G. BI-394-2014